



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-01-26

VIURTEA 1.346.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo, Lizartzako Inauterietako une bat. A. IMAZ

TXANTXOZ JANTZITA, LEITZAN, LIZARTZAN ETA BERASTEGIN

INAUTERIAK Festa giroa izan zen atzo hiru herrietan; gaurkoan ere, mozorroek eta festarako gogoak ez dute hutsik egingo 5

AHTren aurkako manifestaziora joateko deia egin du EHNEk

TOLOSA Eusko Jaurlaritzak AHTren publizitatea egiteko gezurretan ari dela salatu dute 3



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

ABEL BARRIOLA PILOTARIA

«Uste dut Gonzalez eta biok finalerdietara iristeko gai garela»

LEITZA Ruiz-Bengoetxea bikotearen aurka du gaur, Binakako Txapelketako partida 4

Txosnagunea
Euskal Herria
plazan finkatzea
nahi du Txosna
Batzordeak

TOLOSA Udalak ez duela onartzen leku finkoa behar duenik azaldu dute 2

Euroaginduaren
zain dago Eneko
Galarraga
Tolosako
espetxean

VILLABONA Atxilotuaren bi senide atxilotu zituzten atzo, Paueko Auzitegian 7

'Mihiluze' eta 'Arratsaldekoa' saioek aurtengo Argia Saria jaso dute

ERREDAKZIOA

Kike Amonarriz tolosarrak aurkezten duen *Mihiluze* ETBleko telebista saioak jaso du telebista alorreko aurtengo Argia Saria. Irrati alorrekoari dagokionez, Arantxa Iturbe tolosarrak aurkezten duen eta Nekane Peñagarikano anoetarra lan taldearen kide den Euskadi Irratiko *Arratsaldekoa* saiori eman diote. Atzo banatu zituzten komunikazio arloa saritzen duten aurtengo Argia Sariak Lasarte-Oriako Txitzardin Beltxajatean.

Aznar eta San Gil Lizartzan

LIZARTZA ● Jose Maria Aznar Espainiako presidente ohia eta PPko kidea Lizartzan izan zen atzo «bertako PPko kideek egiten duten lana bertatik bertara ezagutzeko asmoz». Berarekin batera Maria San Gil EAEn PPko burua eta alderdiko hainbat kide ere izan ziren. Regina Otaola Lizartzako alkateak eta Udaleko hainbat zinegotzik egin zioten harrera. Udaletxe barrura sartu, balkoira irten, eta adierazpenik egin gabe joan ziren. Birtartean, kazetari ugari bildu ziren herrian, eta segurutasun neurriak ere nabarmenak ziren. Herritarrei dagokionez, ez zuten bisita honen inongo berririk. I. TERRADILLOS



Txosnagunea Euskal Herria plazan finkatzea exijitu du Txosna Batzordeak

Tolosa ● «Udalak ez du onartzen Txosnagunea leku finkoa behar duenik, eta ez dute beste proposamenik egiten».

ERREDAKZIOA

Inauteriak gainean ditugu, eta guztia ia prest dagoen bezala, Txosnagunekoek ere prestatuak dute ia guztia. Aurtun, Txosnagunea Euskal Herria plazan izango da eta «Inauteriak animatu eta festa giro herrikoa sortuko duen karpajarriko dugu», azaldu dute.

Dena den, Tolosako Udalak «beste aukerarik ezean», onartu behar izan duela Txosnagunea Euskal Herria plazan kokatzearen eskaera salatu dute, eta aurtengoa ere ez dela nahikoa esan dute. «Behingoz, herri guztietan bezala, Tolosako txosnek gune finko bat izatea aldarrikatzen dugu. Gune erreferentea izan dadin herritarrentzat, eta gu, toki horretara egokitu gaituzten eta urtetik urtera gune egokiago bat sor dezagun. Horretarako, Euskal Herria plaza



Txosna Batzordeko kideak Euskal Herria Plazan, herenegun emandako prentsaurrekoan. I. TERRADILLOS

dela egokiena uste dugu; festa giroan kokaturik dagoelako eta Inauterietan ez zaiolako beste erabilerririk ematen, hutsa geratzen delako alegia».

Txosna Batzordeak azaldutakoaren arabera, «Udalak ez du onartzen toki finko bat behar dugunik eta horrek Euskal Herri plazan

izan behar duenik. Baina beste proposamenik ere ez du egiten. Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak azaldu duen jarrerarekin zera erakusten du, ez gaita Inauterietako parte aitortuak eta edozein iskin eta bazter nahikoa dela guretzat. Aurtun Txosnagunea Euskal Herria plazan izango da, baina aurrerantzean ere horrela izatea exijitzen dugu, denontzat egokiena eta bideragarriena dela».

Udalarekin bilerak

Txosna Batzordeko kideek diotenez, azaroan hasi ziren bilerak egiten Udalarekin. «Gure eskaera nagusiei muzin egin zaie, aitzakia bat edo bestea erabiliz, eta ez dute arazoerikoa irtenbiderik bermatzen eta euren irizpideak inposatzen amaitu nahi dute», diote. Hori gertatzen dela azken bileran gertatutakoarekin diote, izan ere, «ordutegia murriztu dute, eta musika-

rentzat limitadorea ezarriko digutela ere esan dute».

«Oztopoak oztopo eta inposaketak inposaketa», ilusioz jarriko dutela Inauterietan Txosnagunea azaldu dute, eta «gure konpromisoak beteko ditugu, bizilaguneko errespetuz». Hala, Txosna batzordea irekia dela, eta jai herrikoi eta parte-hartzaileen alde lan egin nahi duen ororentzat zabalik dagoela azaldu dute. «Guk eztabaida hauen guztien hasieratik jarrera irekia mantendu dugu. Edonorekin elkartu eta eztabaidatzeko prest agertu gara. Baina ez dugu onartuko beste edozein herritarrek duen zilegatasuna eta eskubideak ukatzea. Gu ere herriaren eta Inauterien parte gara, aukera eta eskubide berdinekin, ez gehiagorekin, ez gutxiagorekin».

Hala, tolosar eta tolosar ez diren guztiak gonbidatu nahi dituzte Txosnagunera Txosna Batzordekoek.

Laburrak

Aparteko Osoko Bilkura egingo dute etzi

TOLOSA ● Aparteko Osoko Bilkura deitu du Udalak etzizirako. 08:00etan izango da, eta Kutxaren Kontseilari Orokorra aukeratu ahal izateko Udalgaiagorekin elkartzeko proposamena onartzea izango da gaia.

Hautesle-zerrendak ikusgai daude udaletxean

TOLOSA ● Martxoaren 9an izango diren hauteskundearen harira, herritarrei jakinarazten zaie indarrean dagoen hautesle-errolako zerrendak jendaurrean jarri egingo direla udaletxeko beheko solairuan, astelehenera arte. Oker dagoen daturen bat zuzendu nahi duenak orain du aukera. Erreklamazioa egiteko NANaren, pasaportearen edo gida-baimenaren fotokopia aurkeztu beharko du udaletxeko estatistika departamentuan (3. solairuan).

Udal Liburutegiaren ordutegia luzatu dute

TOLOSA ● Azterketa garaia izanik, ohiko eran, Udal Liburutegiaren goizeko ordutegia zabaldu egin dute; otsailaren 15era arte 09:00etatik 13:00etara izango da zabalik.

Txistulari eta Musika Bandaren kontzertua, bihar

TOLOSA ● Tolosako Musika Bandak eta Txistulari Bandak kontzertua emango dute bihar, 12:15ean Berdura Plazan. Inauterietako doinuak izango dira entzungai.

Futbol Indoor txapelketako sarrerak salgai daude

TOLOSA ● Otsailaren 1ean Usabalen, 20:00etan, Futbol Indoor txapelketaren partidua, Reala eta Atletico Madril artean jokatu da. Sarrerak salgai daude Shanti Kirolak dendan, Usabalgo Bide Bide tabernan eta Anoetako Haizea tabernan.

Txistulari eta Musika Bandaren kontzertua, bihar

TOLOSA ● Haur Danborradaren entsegu nagusia egingo dute bihar, 11:30ean, Triangulon (euria egiten badu Zerkausian). Urte askoan danborradaren koordinatzaile izan den Santi Belaunzarani omenaldia ere egingo diote.

Voith-Gorostidiko etxebizitzak aldatzea

TOLOSA ● Voith-Gorostidi etxebizitzata tasatuen adjudikatzaileen artean etxez aldatzeko prozedura onartu dute. Eskaera udaletxeko erregistroan aurkeztu beharko da otsailaren 7a baino lehen, eta zozketa otsailaren 14an egingo dute.

Buztina Taberna



- Eguneko menua kafea barne, 9'50 €
- Otartekoak
- Plater Konbinatuak

San Juan, 6 • 20270 ANOETA
Tel.: 943 65 14 92



EHNEko ordezkariak, atzo eguniko agerraldian. E. EZEIZA

EHNEk ere manifestaziora joateko deia luzatu du

Gizartea » Gaur 17:00etan, Triangulotik abiatuko da AHTren aurkako manifestazioa; sindikatuak ere bat egiten du.

ERREDAKZIOA

«Nahi ez dugulako, jendarteak behar ez duelako, inposatzen digutela eta gurpil zoro honi bukaera eman behar zaiolako» gaur 17:00etan abiatuta Tolosako kaleetan egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen du EHNE sindikatuak.

Euskal Herriko Nekazarien Elkartek luzatutako datuen arabera, AHTren trazatuak 331 baserri harrapatuko litzuzke zuzenean. Horri, eraikuntzarako beharko liratekeen bide, harrobi, hondakin-degi, mendi mozketa, indusketa lan, lur iraulketa, eskollera eta gainerako eragin «kolateralen kaltea» erantsi behar zaio.

EHNEkoek azaldutakoaren

arabera, «lehenengo sektoreari eragindako kalteak modu ezberdinetakoak izan dira. Alde batetik, lurragalera eta ondorioz, nekazaritzako lanpostuen galera. Ibilbideko kilometro bakoitzeko 5-7 hektarea landa lur desagerraraziko litzuzke gutxienez. Bestalde, Euskal Herriko ibilbide hipotetikoak 440 kilometrotik gora edukiko litzuzke». Honez gain, gainerako nekazari lurren gaineko presioa ere handituko lukeela derituzkoak. «Industrigune, errepide, eta beste hainbat ingurueren hedapena ekarriko litzuzkeelarik, zenbaitgunetara».

Bestalde, ohartarazten dute, lurraldea bitan zatituko lukeela hesi erraldoien bidez. Baserri bereko lursailak, kasu askotan trenbidearen bi aldeetan geratuko litekeelarik. Ondorioz, lur horien erabilera mugatua geratuko litzuzke. Gainera, EHNEkoek azaldutakoaren arabera, ganadua larretzea ia ezinezkoa izango litzuzke trenaren inguruan, honek aterako lukeen

zaratagatik. Zarata honek inguruko pertsonen bizi kalitatean ere eragin zuzena izango duela diote sindikatuak.

AHTren gastu ekonomikoa

«Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Departamentuaren 53 urteetarako aurrekontua da Abiadura Handiko Trenak zahutuko duena». Honenbestez, EHNEkoek luzatzen duten galdera da, ea diru horrekin zenbat gauza utziko diren egiteaz nekazaritzan, etxebizitza politikan, osasunean...

Eusko Jaurlaritza «AHTren publizitatea egiteko» gezurretan ari delare salatzen du EHNEk. «Ezbaitegia errepideak husten lagunduko duela. Atzo egindako agerraldian ere hizpide izan zituzten nekazal sindikatuak, «AHTaren aurkako borroka jasaten ari den kriminalizazio saiakera». Adibide gisa ipini zituzten, Durangoko epaiketara eta Beasaingo bi gazteren aurkako zizitazioa.



LAB sindikatua ere AHTren aurka

GIZARTEA » Tolosaldeko eta Goierriko LAB sindikatuak deituta, Kotxe karabana egin zuten atzo goizean, AHTren aurka egiteko. Tolosatik abiatu ziren eta eskualdeko zenbait herritatik igaro ziren. Honen ostean

Tolosaldeko Lanbide Heziketa Zentroan AHT gelditu elkarlana plataformaren webgune berria aurkeztu zuten. Bestalde, sindikatu abertzalekoek, gaur egingo den manifestaziora joateko deia luzatu zuten. E. EZEIZA



Elisabet Arrieta, Jokin Azkue eta Mikel Iriondo atzoko agerraldian. E. EZEIZA

Berriro herritarrekin bilduko da Udala, Plan Orokorren harira

Hirigintza » Hirugarren aldiz deituko ditu sektore ezberdinetako tolosarrak, Tolosaren Plan Orokorra onartu ahal izateko.

E. EZEIZA

2005ean ekin zioten Tolosako Plan Orokorren gauzatzeari, eta aurrean emango diote amaiera. Honen baitan, «herritarren parte-hartzea nabarmendu nahi izan zuten atzoko agerraldian» Udaleko ordezkariak.

Orain arte bi urratsetan hartu dute parte tolosarrak. Alde batetik, 2005ean, diagnostikoa egin zutenean, eta bestetik, 2006ko urtearen hasieran, aurrerapena egitean. Elisabet Arrieta, ikerketa taldeko kidearen esanetan, «momentu horietan ateratuko proposamenek lotura zuzena dute egindako lanarekin».

Orain plana onarpen fasean dago, eta hau ere parte-hartzaile izateari deituta azaldu zuen atzoko egindako agerraldian Jokin Azkue zinegotziak. Hala, hirugarren deialdia luzatu diete tolosarrei. Hau otsailaren 9an izango da, non aurreko deialdietan izan zirenei, beraiek egindako proposamenen erantzunak emango dizkieten.

Hau da, proposamenak aztertutik ondoren, esango diete, zergatik hauek batzuk plan orokorrean

isladatu diren, eta beste batzuk ez. Hala ere, ekitaldia irekia izango da, eta gainontzeko herritarrek ere joan ahal izango dira.

Arrietaren esanetan, «parte hartu duten pertsonen hainbat gogoa interesgarri plazaratu dituzte. Horien artean, Tolosan gertatzen denarekiko interesa dutela, aberegarria izan dela parte-hartzea, politikari eta herritarren arteko lotura areagotu beharra dagoela eta jarraipena ematea komenigarria litzuzkeela».

Sektore ezberdinak kontuan

Herritarrekin landu diren gaiak ondorengoak izan dira: etxebizitza, mugikortasuna, komunikazioa eta ingurune berdeak. Proiektuaren antolatzeileek hiriko sektore edo talde sozial ezberdinak hartu dituzte kontuan. Hori dela eta, arlo ezberdinetako pertsonen lotura zuzena dute egindako lanarekin.

Bestetik, otsailaren 16an hausnarketara saioa egingo dute. Bertan hainbat galdera litzuzko dizkiete politikariei. Hemen argibide batzuk eman beharko dituzte Udaleko ordezkariak. Izan ere, Arrietak esan bezala, «denek ez dute iritzi bera».

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 656 76 64 36ra.

«**Eztabaida.** Eusko Jaurlaritza sokamuturrari buruzko araudi berriaren zirriborroa egin du, eta hainbat herritar ez dago ados. Tartean, parte-hartzaileen adina mugatu egin dute. Hemendik aurrera 16tik gorakoak bakarrik atera ahal izango dira. Zer duzu esateko?»

www.tolosaldeko-hitza.info

E **Elkarrizketa****ABEL BARRIOLA** ▶ Pilotaria

«Finalerdietara iristeko gai garela uste dugu»



ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

Kirola » Gripea alde batera utzi eta gero, Gonzalezekin batera Ruiz-Bengoetxea bikotearen aurka jokatu du gaur partida.

HARRIET BELLOSO

Pasa den asteburuan gripeak etxean utzi ondoren Abel Barriola (Leitza, 1978) Gonzalezekin batera Binakako Txapelketara itzuliko da. Gaur arratsaldean Ruiz-Bengoetxea bikotearen aurka ariko dira.

Zer moduz joan da pilota aukeraketa?

Nahiko ondo joan da. Guk hiru pilota aukeratu ditugu, bote handikoak eta paretetik irteera handikoak. Beraiek beste hiru aukeratu dituzte, baino gureak baino baxuagoak eta ukitu gehiagokoak dira. Denak oso gustura geratu gara eta ez da arazorik egon.

Nolakoa izango da larunbateko norgehiagoka?

Pasa den asteburuan Oinatz eta Ruiz oso ondo aritu ziren, baina Gonzalez eta ni oso gogor ari gara jokatzeko, beraz larunbateko partida luze eta ikusgarria izango dela uste dut. Binakako norgehiagokak desgaste askoak izaten dira eta ziur nago gaurkoa ere horrelakoa izango dela.

Pasa den asteburuan gaixo egon zinen eta ez zenuen partidarik jokatu. Nola ikusten duzu zure burua partidura begira?

Azken partida baino lehen gripearekin egon nintzen eta oso ahul nengoen jokatzeko. Aste honetako norgehiagoka jokatzeko ondo egongo nintzela banekien, eta horregatik astelohenean hasi nintzen entrenatzen. Gripea ahaztuta daukat eta galtzen badut ez dut aitaki bezala erabiliko.

Gonzalezekin jokatzeko duzun lehenengo aldia izango da?

Beste txapelketa batzuetan berekin jokatu izan dut, baina larunbateko gure lehenengo norgehiagoka ofiziala izango da.

Ondo moldatzen al zarete?

Nahiko ondo moldatzen gara, eta gainera kontuan hartu behar da azkenaldian oso maila ona erakutsi duela, nahiz eta partidua batzuk galdu dituen. Txapelketa hau irabazteko ilusioz gaude, eta hori oso garrantzitsua da. Goi mailako bikotea jarri didate, beraz kezkatzeko arrazoirrik ez dut.

Partiduetako momentu berezitan arreta galtzen duela diote.

Maila handiko pilotaria dela ez dago zalantzarik, baina batzuetan pilotari guztiak bezala partiduetatik atera egiten da. Binakako txapelketan talde lana oso garrantzitsua da, horregatik jokatu baino lehenago elkartu egiten gara kanxara fisikoki eta mentalki ahal den modu hobean sartzeko.

Entrenamenduak nola egiten dituzte?

Bakoitzak bere aldetik entrenatzen du. Pilota kirol indibiduala dela esan ohi da, eta nahiz eta binakako txapelketa izan, entrenamenduak bakarka egiten ditugu. Materiala hautatzeko eta norgehiagokak baino lehenago elkartzeko gara, baina, bestela, bakoitzak

bere aldetik entrenatzen du normalean.

Finalerdietara iristeko aukeraketa al duzue?

Ondo hasia oso baliotsua da, eta oraingo txapelketa primeran doa guretzat. Hiru puntu lortu ditugu, baina oraindik bost partidua gertatu dira eta edozein gauza gertatu daiteke. Finalerdiak jokatzeko gai garela uste dugu, eta bi partidua gehiago irabazten baditugu bertan izango gara ziur gaude.

Nola ikusten dituzte Bengoetxea eta Ruiz?

Dirudienez Oinatzek nahiko gaizki pasa du behatz batekin, eta Patxi aste guztian zehar ez da ehuneko ehuneko egon, baina atzo egindako proben ostean jokatzeko moduan daudela esan dute. Potentzial handiko jokalariek dira, eta

pasa den igandean egin zuten partida zoragarria eta gero goi mailako bikote bat espero dugu.

Nolakoa izaten ari da aurtengo txapelketa?

Orain arte denetik ikusteko aukera izan dugu: partidua onak, txarrak, ezustekoak... tamalez nahiko genukeena baino lesio gehiago gertatzen ari dira. Orokorrean, txapelketa guztietan ikusten diren gauzak gertatzen ari direla uste dut.


Zure ustez zein bikote iritsiko dira finalera?

Ez zait gustatzen pronostikoak egitea, baina Gonzalez eta ni final horretan egotea gustatuko litzaidake. Hala ere, lan handia egin behar dugu oraindik.



Euskal erakundeen politika fiskala aztertuz

TOLOSA » «Euskal Administrazioen politika fiskala aztertzeko» asanblada egin zuten atzo ELAko zenbait sindikalistek, «zehazki etekin dituzten enpresariei 15 milioi pezetako operatzen zentzugabekeria aztertuko zuten». Ondoren, Inauteri giroan «sugearena egin» aritu ziren, eta Berdura Plazan «mitin neoliberalak» egin zuten. I. TERRADILLOS



Pilotako modalitate zaharrenean jolasean

TOLOSA » Xibak sustatu eta Kutxak antolatuta, LH 6. mailakoentzat Bote Luzea jaialdia izan zen atzo Beotibar pilotalekuan eta Usabal kiroldegian. Bertan, Laskorain, Fleming eta San Juan ikastetxeetako gaztetxoek hartu zuten parte. Bote Luzea euskal pilotako modalitate zaharrena da, eta ekimne honekin hau berreskuratu nahi dute Xibakoek. SINADURA



Musika talde ederra osatu zuten Lizartzako eskolako haurrek; herriko kaleetan kalejira osatu zuten. A. IMAZ

» GAUR

Leitza

- **14:00.** Eskalarin bazkaria Aurrean doan.
- **16:00.** Eskea herriko etxeetan. Dultzaineroak, txistulariak, atxuratuak,...
- **19:00.** Urrezko aizkora txapelketako lehia Amazabal pilotalekuan.
- **20:00.** Rumba kontzertua A Rebote taldearen eskutik Atakabeltza Gaztetxean.
- **Gauean.** Atakabeltza Gaztetxean Txupito Pesta eta 60., 70. eta 80. hamarkadako musika.

Lizartza

- **07:00.** Plazan elkartu eta kalejira egingo da dantzari, txantxo eta txistulariek giro alaituko dutelarik.
- **07:30.** Puske-biltzea: dantzariak eta txantxoak elkarrekin ospeletik.
- **09:30.** Etxe-zahar baserrian gel-

- dialdia egingo dute gosaria egiteko.
- **12:00.** Mozorro, gurdi eta txarangen irteera egingo da Errota ataritik.
- **13:30.** Inauterietako partaide guztiak kalejira egingo dute, Arrateko zubitik irtenda.
- **Ondoren.** Denek elkarrekin bazkaria egingo dute frontoian.
- **18:00.** Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira eta ondoren, kalejira eginaz herrian barrena plazara jeitsiko dira. Bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta Lizartzako talogileak egindako taloak jateko aukera izango da.

Berastegi

- **17:00.** Herriko umeen dantza emanaldia.
- **Ondoren.** Txokolatada Guraso Elkartean eskutik.
- **18:30.** Poteoa.
- **21:00.** Afaria.

ERREDAKZIOA

Txikienek lehen Inauteri taupadekin gozatzeko parada izan zuten atzokoan

Leitzan, Berastegin eta Lizartzan. Eguerdian partean bisita «berezi» batek herrian sortutako zalapartaz ohartu gabe, Lizartzako eskolako umetxoek euren mozorroak jantzi eta musika talde onenen pare aritu ziren euren instrumentuak astitzen herriko kaleetan barrena. Kalejira ederra osatu zuten.

Berastegin ere asteburuaren atarian gazteenek gozatu zuten gehien. Izan ere, eskolan bertan antolatutik Inauteri bereziei esker, herriko buelta eman zuten ikasleek. Ondoren, zentzuzkoak izan ziren Atarin.

Leitzako Ithoek izen handia dute Nafarroan zein inguruan. Atzo herrira gerturatu zenak gertutik egiazatzeko aukera izan zuen kaleetan giro paregabea sortu baitzuten eskolako ikasle eta irakasleek eginiko kalejiran. Ondoren, gainera, haurrenek aurrez prestatutako emanaldiak eskaini zituzten bertan, bertaratuen gozamenarako.

Gaur ere ez du etenik jaiak eta egitarau zabala prestatu dute hiru herri hauetan.

Leitzako, Lizartzako eta Berastegiko ikasleek Inauterietako jaialdiak ospatu zituzten atzo arratsaldean; mozorroak jantzi eta kalejiran herriko kaleak zeharkatu zituzten, herriarren begiradapean; gaur ere Inauterietako egitarau zabala izango dute aukeran hiru herrietan.

Kaleak kolorez jantzita



Berastegin zezenaren aurrean jarri ziren ausartenak. ESTI EZEIZA



Giro paregabea sortu zuten Leitzako ikasleek herriko kaleetan. E. EZEIZA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

U Urteurrena

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95



I. Urteurrena
**ALFREDO AZANZA
TELLETXIKI**

Eguzki eder joan guztien argia baitu bihotzak; zentzuen mila ernegai iraganaren oroitzak.

Urteurreneko meza BIHAR, IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN Zaldibiako elizan izango da.



ZALDIBIA
2008ko urtarrilaren 26a

Herritarrek aurrekontuetan parte hartzea dute helburu

Alegia » Parte-hartze Batzordearen helburua izan da, eta herriko hainbat gaietako bilerak antolatatu ditu datozen egunetan.

ERREDAKZIOA

Alegian Udal Batzordeak martxan daude, 2008. urteko aurrekontua lantzen. Arlo bakoitzak bere asmoak zerrendatzeari ekin dio eta beste aldetik Parte-hartze Batzordea osatu dute eta lanean hasi dira. Herritarrek aurrekontu prozesuan parte hartzeko bideak jartzea da talde honen helburua. Joan den astelehenean egin zuen batzorde honen azken bilera eta aurrekontuak eztabaidatzeko plangintza eta komunikazioa landu zituen. Batzordearen datak ere zehaztu zituen.

Horrela, otsailaren 19an egingo da Koordinazio Batzordea. Hor ordura arte batzorde desberdinek landutakoa aztertuko da, lehentasunak finkatuz. Ordura arte beste bideetatik herritarrek egin ahal izango dituzten ekarpenak ere bertan plazaratuko dituzte.

Herriko beharrak ikusteko

Ohiko bideez gain (udal bulegoak, www.alegia.net web gunea, udal-erretxeko buzoia, eta Batzorde irekietan parte hartzea), otsailaren 16an, *Kalez kale* ekimena antolatzea erabaki dute. Bertan, hala nahi duten herritarrek plazan bildu eta handik abiatuta herriko kale eta txoko guztiak pasako dituzte bertako be-



Azken hilabeteetan Alegiko Kultur Etxera joateko zubi inguruan obrak egin dituzte. Beste hainbat aldaketa egin ahal izango dira hainbat txokotan. N.U.

harrak zuzenean ikusteko, inguru horietako auzotarrek beraien kezak azaltzeko eta Batzordean lantzen ari diren beharrak ikuskatzeko.

Bat egiteko koordinazio Batzordean aurreproiektua osatu eta gero herritarrei berriro azaltzeko ahalegina egingo da, panelen bidez, kalean mahaia jarriz, bulegoak irekiz... Bukatzeko azken eztabaida eta onarpena egingo dute martxoaren 11n egingo den Herri Batzarrean. Data horiek betetzea eta errespetatzea espero du Parte-hartze Batzordeak, dena ondo joango delakoan, plangintza aurrera eramango duen herritar taldeak.

Geltokin eta Euskal Herrian barrakak eta txosnak jarriko dituzte

Garraioak » Udaltzaingoak adierazi du autorik ezingo dela utzi ez sartu; autobus geltoki gehiago izango dira.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udaltzaingoaren oharra da honakoa: barrakak, etzi astelehena, Geltoki plazan sartuko dituzte. Beraz, 08:00etatik autorik gabe egon beharko du plaza honen. Berdin Euskal Herria plazan: txosnak izango dira eta libre egon beharko du lekuak asteartetik aurrera, 08:00etan hasita.

Autobusetako ordutegiak

Bestalde, Inauterietan autobusen ordutegiak areagotu egin dituzte. Gaur, Ostegun Gizenan, Ostiral Mehe eta Zaldunita Bezperan Hiribusa egunean berdin ariko da 22:00ak arte, ohiko ibilbidean.

Tolosaldeko autobusek, berriz, honakoa egingo dute gaur eta Inauterietako egun guztietan (31-5): gauaz ariko dira, 00:00etan, 02:00etan eta 03:30ean Tolosa (Zumardi Txikia)-Iurre-Amarotz-Alegia-Amezketeta-Ikatztegi-ta egiten. 01:00etan, 02:45ean eta 04:15ean, berriz, Tolosa (Zumardi Txikia)-Iurre-Amarotz-Ibarra-Berrobi-Eldua-Elduain-Berastegi ibilbidea egingo dute.

Datorren asteazkenean ohiko plenoa egingo dute 20:30ean

Amezketeta » Udal aurrekontu orokorrak onartu, nitxoan kontzesioa eta Kultur Etxeaz ariko dira, besteen artean.

ERREDAKZIOA

Datorren asteazkenean, hilaren 30ean, hain zuzen, 20:30ean Amezketako udal-erretxeko pleno aretoa ohiko plenoa egingo dute. Horregatik Amezketako Jexus Ifurritia alkateak udalkide guztiak deialdia egin nahi izan die.

Bertan, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dituzte: 2007ko abenduaren 27an eginiko Ohiko Bilkuraren Akta onartzea. Bigarrenik, 2007ko azaroaren 29an eta 2007ko abenduaren 27an egin zuten Ohiko Bilkuraren Akta onarpenaren berrespena.

Hirugarren gaia Kultur Etxeko inbertsio gastuaren urteanitzeko izaera onartzea izango da.

2008 urteko udal aurrekontu orokorrak eta langileen zerrenda-plantila organikoak onartu ere egin behar dute datorren asteazkenean.

Bukatzeko, nitxoan kontzesioa eta EAE-ANV-k aurkeztutako mozioa, aurreko bileretan hitz egin-dako batzordeen informazioa emango dute.

S Soka motzean

«Askotan geure buruak ere gaixotzen du gure ahotsa»

NEREA ERBITI

Abeslaria eta trikitilaria

N. URBIZU

Jazz kantuko ikaslea, trikitilaria eta abeslaria da (Leitza, 1980).

Kontzertu bat ikusi edo eman?

Eman. Gehien gustatzen zaidana da.

Ikusi behar den emanaldi bat?

Bat ez nuke esanen, gehiegi gomendatuko nituzke.

Trikitilari bat?

Joseba Tapia. Hemendik kanpo, akordeoi diatonikoarekin Flaco Jimenez.

«Tapiak trikitixa uztea erabaki du».

Beno, oso ongi, bere erabakia da...

Abeslari bat?

Erykah Badu [zalantza handirik ez du egin].

Etzarria ongi izateko bada erremedio fidagarrik?

Asko daude, baina hobe aurretik heltzea teknika eginez. Askotan geure buruak ere gaixotzen du gure ahotsa.

Emakume ala gizon ahotsa?

Emakumeena errexagoa da gustatzea. Gizonezko gutxiarekin gustatzen zaizkit, baina gustuko ditudanak, oso gustuko ditut.

Eskenatokia zaudela kantatzen hasi eta... ahotsik ez!

Buf! Inpotentzia, baina zuzenean banago badakit nola daukadan aurretik. Lehenago nabaritzen gero, ordea, zaintzeko paranoia sartuko litzaidake, itolarria.



N.U.

» DATOZEN BILERAK

- **Hilak 29, asteartea.** 19:00etan udal-erretxeko auzolana, udal zerbitzua, mantenimendu, mendia eta ingurugiroari buruz.
- **Hilak 29, asteartea.** 20:00etan Ogasuna, ekonomia, enplegua, emakumea eta gai orokorrak.
- **Hilak 30, asteazkena.** 19:30ean udal-erretxeko, osasungintza, gizarte ongizatea eta hezkuntza.
- **Hilak 30, asteazkena.** Hirigintza, obrak eta etxebizitzari

buruz, udal-erretxeko, 20:00etan hasita.

- **Otsailak 7, osteguna.** 19:00etan Kultur Etxean, Gazteria eta kirola.
- **Otsailak 16, larunbata.** Herriko plazan 09:30ean *Kalez kale*.
- **Otsailak 19, asteartea.** Koordinazio Batzordea: pleno aretoa 19:30ean.
- **Martxoak 11, asteartea.** Herri Batzarra Eztabaidatu eta onartu, pleno aretoa 19:30ean.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN
PROBIGURRAK

Jogurta

Mahala baserrira - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Bidebieta auzoan, guztiz eraberritua.

Salgai (Tolosa). Etxebizitza garajearekin. Trinkete auzoan.

Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Nagusia kalean, igogailuarekin.

Salgai (Alegia). Etxebizitza, oso eguzkitua.

Salgai (Tolosa). Garajeak San Frantzisko eta Leidor azpian.

Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, zentroan.

Alokatzeko. Garajeak, Iurre, San Frantzisko eta Araba etorbidean.

Alokatzeko (Ibarra). Pabillioi industriala, Leaburuko bidean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

G Gutunak

Pello Odriozola tolosarra, 20 urte borrokan eta erresistentzian

Astelehen honetan beteko dira 20 urte Pello Odriozola euskal preso politikoko tolosarra atxilotu zutenetik, Edorta Agirre eta Antton Ota-mendi, "Muixar"-ekin batera.

Txantaia, gorrotoa, mendekua, gehiegikeria. Gatazka guztietan preso politikoak txantaia-tuak izaten dira. Euskal Preso Politikoen kontra, gaur egun, frantziar zein espainiar Gobernuen presioa eta errepresioak ez du etenik, ezta Euskal Herriaren kontra ere; azkeneko egunetan, asteetan, ehunka atxilotetetan, torturetari (Gorka, Igor eta Mattinen kasuak azkene-koak), inkomunikazioan, kontrol-letan, beraiekin bat ez datozen era guztietako disidentziaren kon-tran, baina baita ere euskal preso politikoen Kolektiboak jasaten duen etengabe-eraso dietan ere. Peloren espetxetako ibilbidean

ere argi ikusten dugu, batez ere Ourenseko espetxean pasatako lau urteetan, han euskal preso poli-tiko bakarra izanik, erabateko iso-lamenduan.

Guzti honi, beste drama bat gehitu behar diogu, senitartekoen istripuak, astero astero milaka ki-lometro egin beharra, 40 minutu-tako bisita izateko (zorte ona izanez gero). Orain dela hilabete, az-keneko kasua; Nati Junkoren heriotza hain zuzen ere. Gehiegiz-koa da. Izugarritzko gehiegikeria asteburueroko ehunka senitartekok nolako arriskuari aurre egin behar dioten. Gehiegikeria istripuen on-dorioz autoa txikitu eta bota behar izan dutenak (eta pozik onik atera direlako) hurrengo bidaiaz pen-satzen duten bitartean, gehiegiz-koa gastatu behar duten dirua. Imagina ezazue bisitaren zain da-goenak zer duen gogoan senitarte-koak ikusi arte eta berritortxean direla jakin arte.

Imagina ezazue gaixotasun sen-

daezina duen preso, Administra-zioaren axolagabekeriaren bikti-ma, barruan hainbat urte eman on-doren, legea, efektu errepresibo guztiekien aplikatu diotena, ez zaio-la oraingoan aplikatuko ikusita. Egoera hau jasaten dutenek izen abizenak dituzte, eta ez dira sal-buespen batzuk, gehiegi dira. Ze-rrenda luzea osatzen dute, egungo kasu krudelen eta lazgarrienak di-ren Juan Jose Rego, Gotzone Lo-peze de Luzuriaga, Anjel Figueroa edota Jon Agirrek, besteak beste, hamabiraino iritsi arte.

Imagina ezazue bere zigor luzea ematen duen Pello, eta Pello bezala beste 170 kide, legeak agintzen duen baldintzapeko askatasuna eman ez eta urteetako zigor erant-sia ezarri dietela ikusita. Eta egun hauetan, Atutxa kasu, hain gogor justizia eskatzen ari direnak non daude lege urraketa hauek salatze-ko?

Ez ikusiarena egiten dute askok biolentziaren aitzakian, biolentzia

zehatz baten aitzakian, gainerako biolentziak ez omen baitira ozto-po, herri honen aurkako legeei men egiteko ez ezik haiek bete-a-ratzeko eta beraiez probetxua ate-latzeko ere bai. Hala jokatzen ari dira PNV eta Jaurlaritza, zeinen-tzat eskubide batzuk beste batzuk baino eskubideago baitira. Polizia bati eskatzen diona ez dio bereari betearazten. Barregarria izango li-tzateke torturari buruz egin duten ustezko salaketa, negargarria ez balitz.

Egoera honek ezin du erantzun-ikgabe geratu, ezin dugu horrela-ko egoerarik onartu. Erasoaldi errepresibo honi ezezkoa esan be-har diogu, ezezkoa Espainiar eta Frantziar Estatuei eta baita erre-presio honetan bere kolaborazioa eta isiltasunarekin parte hartzen duen guztiei ere. Egoera honetan ezin du inork bere ardurarik sahiestu. Gaur egun, isiltasuna erantzule eta erruduna da.

Jasaten dugun errepresioari

erantzutea eta injustizia eta bide-gabekeria guzti hauen salaketa mugimendu bat martxan jartzea behartuak gaude Euskal Herrian. Bide polizial eta errepresibo ho-nek ez gaituela konponbide iraun-kor batera eramango salatu behar dugu. Espainiar eta Frantziar Go-bernuei euskal preso politikoei ezartzen dien tratamendua ez du-gula onartzen jakinarazteko masi-boki mobilizatu beharra daukagu. Erlojuaren kontrako borroka honetan konpromiso sendoak hartu eta herritarren indarrez euskal presoak euskal herrira ekartzeko ahalagin guztiak antolatzea ezin-beste-koa da. Eta horretarako igan-de honetan daukagu aurreneko hi-tzordua, Peloren eskubideen alde egingo dugun ekitaldi eta manifes-taldiarekin. Hau arratsaldeko 19:00etan hasiko da Trianguloan.

Mikel Zabala. Tolosako Amnistia-ren Aldeko Mugimenduaren izene-an.

Euroaginduaren zain Eneko Galarraga

Politika » Paueko Auzitegira atxilotuari babesa agertzera joan ziren bi senide atxilotu zituen Frantziako Poliziak.

ASIER IMAZ

Eneko Galarraga billabonarra atzo goizean eraman zuten Baionako (Lapurdi) komisaldegitik Paueko (Frantzia) Auzitegira. Bertako prokuradoreak espetxeratzeko agindua eman zuen.

«Bi senide atxiloturiko»

Askatasunak jakinarazi duenez, Galarragaren bi senide atxilotu zituzten Paue, atxilotuari elkarta-suna adierazteko ahaleginean ari

zirela. Izan ere, Eneko Galarraga billabonarraren hainbat senide eta lagun joan ziren atzo Paueko Auzitegira, eta Galarraga zeraman autoa iristean hurbiltzen saiatu zi-ren. Askatasunaren arabera, poli-ziek «bortizkeria handiz» sakaba-natu zituen bertara joandako lagun eta aideak, eta «horrela bi senide jo ondoren atxilotuta era-man zituzten».

Hauek Paueko polizia etxean eduki zituzten «lau ordu inguruz». Euretariko baten esanetan, «atxi-lotzerako uanean muturreko bat eta ostiko batzuk eman zizkidaten baina gero besterik ez; argazkiak atera, hatz markak hartu eta zita-zio bat; txarrenera bost urtetan Frantziar sartzetik ez dugu izan-go».

Euroaginduaren zain

Herenegun Urruñako bere etxean atxilotu zuten Eneko Galarraga, «bertan bizitzera normala egiten zuten». Atzo Pauetik Tolosako es-petxera eraman zuten. Frantziako Poliziak ETArekin zerikusia izate-a egotzi zion eta atxilotzerako uanean Eneko Galarragak ez zera-man ez armarik ez eta ere agiri fal-tsuririk ere.

Espainiaren euroagindu bat dago Galarragaren aurka, eta ho-rren harira atxilotu zuten. Euroa-ginduaz erabaki bitartean kartzel-an edukitzea erabaki du prokura-doreak. Datorren asteartean aztertuko dute Paueko Auzitegian euroagindu eskaera, baina litekee-na da erabakia atzeratzea defen-tsak prestatzeko astia izan dezan.

AZKEN OSTIRALEAN GALARRAGA, ODRIOZOLA ETA IZTUETA GOGOAN

Atzo hilabeteko azken ostirala izan-ik, elkarretaratzeak egin zituzten bi eskualdeetako ohiko herrietan. Eneko Galarragaren atxiloteta sa-latzeaz gain, aste honetan atze-rrian hil den Endika Iztueta santur-tziarra gogoan izan zuten Pello Odriozola euskal preso tolosarra-ekin batera: «Endika Iztuetak bere bizitza guztia Euskal Herriari es-kaini dio, azken 22 urteak Cabo Verden deportatu gisa. 1985. urte-an eraman zuten Aljeriatik beste 10 lagunekin batera. Dagoeneko hiru dira Cabo Verden hildako errefuxiatuak, Juanra Aranburu 89. urtean, Angel Lete 2002an eta orain Endika Iztueta».

Pello Odriozolak etzi espetxean 20 urte egingo dituela gogoratu zuten, bihar 19:00etan egingo zaion omenaldira agertzeko dei-tuaz; «Pello Odriozola euskal pre-so politikoko tolosarra eta bera beza-la beste euskal preso politikoko uga-rik kalean egon beharko lukete iadanik, baina bi estatuen errepre-sioak mugarik ez duela dirudi. Az-ken aldian abiadura handiko mar-txa sartu dute eta ez baldin baditu-gu gelditzen, ez dira geldituko. Horretarako modu bakarra dauka-gu, mobilizatzea, antolatzea eta borrokatzea. Horretarako aukera izango da igande honetan, 19:00etan Peloren eskubideen alde egingo dugun ekitaldian eta manifestazioan parte hartuz. Bera 19:00etan hasiko da eta denak Triangulo plazara gonbidatzen di-tugu».

Egur Sporten eta Federazioaren arteko harremanak eten egin dituzte

Ibarra » Unai Otaño aizkolariak joan den azaroaren 19az geroztik Federazioko lizentzia baliogabetuta dauka.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Herri Kirol Federa-zioak Egur Sport-ekin (kirol jar-dueren eta ferien antolakuntza) eta bertako Luis Mari Bengoa-ekin harremanak etetea erabaki du. Unai Otaño aizkolariak doping-eko proban joan den irailaren posi-tibo eman zuten, baina hala ere Egur Sport-ek antolatutako pro-betan Otaño ibartarrak parte har-tzen jarraitu du. Hau izan da fede-razioak Egur Sport-ekin harrema-nak epe mugarik gabe moztearen arrazo nagusia.

Federazioak adierazi duenez, «onartezina da kirol arloan dihar-duen inolako erakunde publiko edo pribatu bakar batek ere, berak antolatutako kirol ekitaldi ofizial edo ez ofizialekin kirolari bati esku hartzen uztea», analisisiek adierazi duten moduan positibo eman due-la eta zigor-espeditente bat irekia zuela. Otañok Federazioko lizen-tziabaliogabetua dauka azaroaren 19tik aurrera.

Bengoaren «jarrera immoral»

Gipuzkoako Federazioak Bengoa-ren jokabidea «moralaren aurka-koa izateaz gain, etikatik kanpo» dagoela esan du, eta bere kirol ne-gozioa «bideratu behar duela».



Hilabeteko azken ostirala izaki atzo, elkarretaratzeak egin ziren ohiko herrietan. ASIER IMAZ



11°
7°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 13°
HOTZENA 7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** AHTren aurkako manifestazioa egingo dute 17:00etan. Triangulo plazatik aterako dira.

Jaiak

■ **Leitza.** Inauteriak: 14:00etan eskalarin bazkaria; 16:00etan eske herriko etxeetan; 19:00etan Urrezko Aizkora Txapelketa pilotalekuan; 20:00etan rumba konzertua A Rebote taldearekin Atakabeltzan eta gauean Txupito Pestata.

■ **Lizartza.** Inauteriak: 7:00etan plazatik kalejira, 7:30ean puskebiltzea, 9:30ean gosaria Etxe-zahar baserrian, 12:00etan mozorro, gurdi eta txarangen irteera, 13:30ean kalejira, ondoren bazkaria frontoian, 18:00etan gurdi eta mozorro kalejira.

Zinema

■ **Villabona.** *La busqueda 2* filma emango dute Gurea zineman gaur 22:30ean eta bihar 19:30ean.

Kultur Asteak

■ **Ibarra.** Belabietan 11:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:00etara gaztelu puzgarriak, to-boganak, euskaraokea...

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Joseba Rojas Gracial (Alegia).
Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu bat etxeko guztien partetik.

Txikienak ere Inauterien iragarle

Tolosaldea » Tolosan gaur izango da kaldereroen desfilea, baina atzokoan eskualdeko hainbat herritara heldu ziren.

ERREDAKZIOA

Hungariatik helduko omen dira gaurkoan kaldereroak Tolosara, Ostegunean ekingo dieten Inauterien iragarle. Bidean etenalditxo egin dute eta herriko hainbat txokoetara heldu ziren atzokoan.

Hain zuzen ere, etxeko txikienek gozatu zuten kaldereroen helduerarekin. Noski, gurasoek ez zuten unea galdu nahi izan eta adidi jarraitu zieten ekitaldiei.

Zizurkilen, Pedro Mari Otaño eskolako haurtxoek euren zartagia eskuetan eta jantziak soinean, kaldereroak ospatu zituzten eguerdi partean. Guztiek ere ederki igaro zuten arratsaldea zartagiarri astinduz.

Anoetak eta Irurak, esaterako, bat egin zuten kaldereroak ospatzeko. Anoetako plazan elkartu ziren guztiak eta kalejiran Irurako plazara abiatu ziren, adinaren arabera banatuta. Loatzoko musika egin dute eta herriko hainbat txokoetara heldu ziren ibilbidea.

Ibarrakogatzetxoak ere ez ziren salbuespena izan eta kalejiran atera ziren herriatik kaldereroen etorrera iragarri eta herriko kaleak alaituz.



Anoetako eta Irurako haurrak, Anoetan. NEREA URBIZU



Ibarran dantza egin zuten ere, kalejiran. ASIER IMAZ



Zizurkilen kalejira egin dute. Lapikoak ederki astindu zituzten. IIMANOL GARCIA



Matrikula zabalik

Urtarrilaren 28tik 31ra

Ordutegia: 09:00 -14:00
Dauden taldeetan sartzeko.

Helbidea: **Rondilla, 34-B 3.a**
Telefonoak: **943 651006 – 943 652343**

Otsailean
zure kioskoan



Egin zaitetz harpidedun:
hitzaren harpidedunentzat
eskaintza berezia: **18 €/urtean**

Deitu **943 30 35 54**